

1999ko UZTAILAREN 3ko BILKURA BEREZIA

Lizartzan, mila bederatziehun eta laurogeita hemeretziko uztailaren hiruan, eguerdiko hamabiak direnean, joan den ekainaren hamahiruan egindako Udal Hauteskundeetan aukeratuak izan diren, Jose Antonio Mintegi Arrate, Juan Luis Alaña Arrinda, Ana Ederra Irurzun, Antonio Balerdi Garmendia, Nerea Altuna Zubeldia, Maria Lourdes Altuna Arritegi, Lorenzo Goikoetxeaundia Martinez Jaun/Andreek, lehen deialdian bildu dira.

Parte hartzen du eta ekitaldiaren fede ematen du, Idazkaria den, Ana Jesus Zabala Garmendiak, Udaleko Idazkariak, hain zuzen.

Idazkariak adierazten du batzarraldi honen helburua Udalaren eraketa dela, horrela betez, martxoaren 13ko 8/1991 Lege Organikoak aldatutako Hauteskunde Orokorretako Lege Organikoaren 195.1 Artikuluak eta Udal Korporazioetako Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko Erregelamenduaren 37.1 artikulua agindutakoa, ondoko gai zerrendaren arabera:

- Korporazioa eratzea.
- Alkatea aukeratzea eta karguaren jabe egitea, kasua balitz.

Behin Idazkariak batzarraldiari hasiera emanez gero, Adineko Mahaia osatzen da, martxoaren 13ko 8/1991 Lege Organikoak aldatutako Hauteskunde Orokorren Errejimenari buruzko Ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoko 195.2 artikuluan aurrikusitakoa betez, eta Mahai hori osatzen dutenak izango dira, Ana Ederra Irurzun, Zinegotzi hautatua zaharrena izanik, mahaiburu izango dena, eta Nerea Altuna Zubeldia, Zinegotzia hautatu gazteena izanik, Idazkari gisa arituko dena, berau izango delarik, baita ere, batzarraldi honetako Idazkaria.

Mahaiko Idazkariak irakurtzen ditu banan banan aldez aurretik berari entregatutako kredentzial guztiak, Zinegotzi hautatuen nortasuna kreditatzen

dutenak, eta Mahaikideek egiaztatu ondoren kredentzial horiek Zonako Hauteskunde Juntak Udaletxe honetara bere garaian bidali zituen ziurtagiriekin bat datozela ikusten da.

Udaleko Idazkariak, bateraezintasun arrazoien, ihardueren eta ondare ondasunen aitorten bidezkoak aurkeztu izana frogatu duten Korporaziokideen Interes Erregistroetan inskribatzearen ondorioetarako:

JOSE ANTONIO MINTEGI ARRATE
JUAN LUIS ALAÑA ARRINDA
ANA EDERRA IRURZUN
ANTONIO BALERDI GARMENDIA
NEREA ALTUNA ZUBELDIA
MARIA LOURDES ALTUNA ARRITEGI
LORENZO GOIKOETXEAUNDIA MARTINEZ

KORPORAZIOAREN ERAKETA

Aurreko operazioa egin ondoren eta kontuan izanik batzarraldi honetara hautatuak izan diren Zinegotzi guztiak etorri direla, Adineko Mahaiko Buruak karguaren jabetza ematen die zinegotzi hautatuei, Korporazioa formalki eratua aitortzen duelarik.

ALKATEA AUKERATZEA

Idazkariak adierazten die bertan daudenei, martxoaren 13ko 8/1991 Lege Organikoaren bidez aldatutako Hauteskunde Orokorren Errejimenari buruzko Ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 196 artikuluan xedatzen denaren arabera, Korporazioa eratu den Batzarraldi berdinean aukeratu behar dela Alkatea ere, lege horretan ezarritako prozedurari jarraiki.

- Hautagai dira zerrendaburu diren zinegotzi guztiak.
- Hautesle dira bertan dauden zinegotzi hautatu guztiak.

- Aukeraketa txartel sekretu bidez egingo da, botazio bakarra eginez.
- Botuen absolutu legala lortzen duen hautagaia izango da hautatua, beraz, gutxienez lau botu beharko dira.
- Botazio honetan ez badu lortzen ezein hautagaik gehiengo absolutua, automatikoki aldarrikatuko da Alkate, botu kopururik haundiena lortu duen zerrendako buru den zinegotzi hautatua. Enpatea gertatuz gero, zozketa bidez ebatziko da.

Txosten honen arabera eta gai honi buruz ditugun aurrekinetan oinarrituz, Alkategai izendatzen da ondoko zinegotzi hautatua:

JOSE ANTONIO MINTEGI ARRATE, Euskal Herritarrok alderdiko zerrendaburu dena.

Bertaratutako Zinegotziek isilpeko bozketari ekiten diote eta, emandako botuen kontaketa burutu ondoren, honako emaitza hau lortzen da:

HAUTAGAIAREN IZENA	LORTUTAKO BOTUAK
--------------------	------------------

JOSE ANTONIO MINTEGI ARRATE	7
-----------------------------	---

JOSE ANTONIO MINTEGI ARRATE Jauna aldarrikatzen da Alkate.

Jarraian, JOSE ANTONIO MINTEGI ARRATE Jaunak adierazten du, onartu egiten duela Udaleko Alkate kargua eta, karguaren jabetza hartzen du edukitza hau ematen dion Korporazioko Udal Batzarraren aurrean, edukitzen horrek barnean dituelarik indarrean dauden xedapenek ematen dizkioten prerrogatiba, eskubide eta obligazio guztiak.

Era berean, JUAN LUIS ALAÑA ARRINDA Euskal Preso Zinegotziari, Lizartzatarrak guztien ongi etorririk beroena eskeiniz, berari hitza ematen dio.

Koldok, jendeari eskerrak ematen dizkio, bera aukeratzeagatik, eta une honetan Lizartzan izateagatik oso pozik dagoela agertzen du.

Jarraian, Alkate Berriak, aurreko legealdiko balantzea eta Euskal Herritarrok taldeak, hurrengo lau urteetarako prestatu duen Lan Programa aurkezten du.

Ondoren, bazkaldu eta Koldori bisitak egiten jarraitu ahal izateko, Batzarra moztu egiten da, berriro arratsaldeko hiruretan jarraipena emango zaiolarik.

Arratsaldeko hirurak direnean, Batzarra berriro hasten da, gai hauekin jarraituz:

Idazkariak, hiru agiri hauek aurkezten ditu, zinegotziek azter ditzaten:

- a) Kutxako kontaketa agiria;
- b) Udalak dirutan nahiz baloretan dituen izakinen egiaztagiriak;
- c) Udal-Ondarearen Inbentarioa.

Aho batez onartuak izan dira.

MOZIOA

Alkateak, Euskal Presoen herriratze eta beraien eskubideak errespetatzearen aldeko mozioa aurkeztu du, eta honela dio:

Azken eguberrietatik gaur arte, euskal presoen herriratze eta beraien eskubideak errespetatzearen aldeko ekimen asko izan dira gure herrian eta aldi berean Euskal Herri osoan ere bai (Senideak-ek aurkezturiko mozio bati babes handia, udaletxeen aurrean abenduaren 31an egin ziren kontzentrazio jendetsuak, urtarrilaren 9an Bilbon izan zen manifestaldi erraldoia, Gasteizko

Parlamenduak eta Batzar nagusiek eginiko aldarrikapen instituzionalak, e.a.). Ekimen hauek, Euskal gizartearen gehiengoak eskubide hauen alde duen iritzia nabarmen utzi dute behin eta berriz.

Nahiz eta hori hala izan, Madril eta Pariseko Gobernuak legez kanpoko egoera hau mantentzen dute, euskal presoen eta beraien senitartekoen sufrimendua areagotuz.

Hau guztiagatik, eta KOLDO ALAÑA ARRINDA euskal presoak, herri honetako biztanleek hautatu gisa aukeratu dutela kontutan izanik eta orain artean udal honek hartuak dituen erabakietan oinarriturik, Osoko Bilkura honi, zera proposatzen zaio:

- 1.- Madrileko Gobernuari, KOLDO ALAÑA ARRINDA presoak Martuteneko kartzelan egon dadin duen eskubidea bete eta gehiago dispertsiorik ez aplikatuzeko esijitzea.
- 2.- Madril eta Pariseko Gobernuari euskal gizartearen aho batezko borondatea beteaz euskal presoak Euskal Herrian dauden kartzeletara ekartzeko beharrezko tramiteak egiten hasteko.
- 3.- Udal honek, aurreko bi puntuetan onartua bete dadin eskatzeko beharrezkoak diren pausuak emango ditu.

Euskal presoek herriratze eta beraien eskubideak errespetatzearen aldeko mozioa, aho batez onartua izan da.

Horrenbestez, Alkate-Lehendakariak amaitutzat eman du Batzarra, arratsaldeko lauak direnean.